

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



KIROLDEGI BERRIA URNIETAN

Azken urteotako inbertsiorik handiena jendaurrean aurkeztu zuen Udalak / 10-11



Santa Ageda bezpera, Euskal Herriko eguna

Ohitura zaharra biziberritu zuten Andoainen eta Urnietan. Ikastetxeak eta helduen talde ezberdinak kantuan irten ziren, kalez kale eta baserriz baserri / 8-9



Urnietako euskaltzaleek Sabina Arruarteri azken agurra eman diote aste honetan / 7



Erretiroa hartu du Pedro Rodriguez udaltzainburuak; elkarrizketa eskaini dio Aiurriri / 2-3



Elur giroak ez zuen Urnietako ipar martxa eta kros lasterketa geldiarazi / 12

60% 50% 30% 40% 20% **ALTZARIAREN AZOKA URNIETAN.** OTSAILAK **11-17**

Ordutegia: 9:30-13:00 / 16:00-19:30. IGANDEA 17 10ETATIK 14ETARA.
NEI KIT ALTZARIAK ETA MUEBLES ITURBEN. IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70. 20130 URNIETA. 943 552 750 / 688 632 191
www.mueblesiturbe.com

Nei Muebles Kit Altzariak

iturbe SUKALDEA ETA ETXEA (1964az geroztik)

Erretiroa hartuta badoa

PEDRO RODRIGUEZ ANDOINGO UDALTZAINBURU OHIA

Otsailaren 2an zuen azken lan eguna Andoaingo udaltzainak. Berrogei urte egin ditu lanpostuan, eta horietatik erdiak buruzagiaren ardurak betez

Xabier Lasa ANDOAIN

Jendeari begirako jarduna izan da berea, eta denetik bizi izatea egokitu zaio: istripuak, erasoak, hilketak, lapurretak, isunak... Buruhasteak eta min pertsonala eragin dizkioten pasadizoak ditu gogoan, une atseginak baino gehiago.

1979an sartu zinen Udaltzaingoa. Promozio berri bateko kidea izan zinen. Aurrekoekin ez zenuten zerikusirik.

Frankismoa atzean utzi berritan, Andoainen bazegoen premia Udaltzaingoa berritu eta handitzeko. Eta horri ekin zion Udalak. Sei gazte sartu ginen aldi berean: Joseba Garcia, Carlos Salinas, Yolanda Canora, Joseba eta Iñaki Pagazaurtundua anaiak eta seirok. Hilabete batzuetara Ibon Lekuona eta Lanberto Otermini etorri ziren ere.

Egia esan, polizien uniformeak errezeloak sortu izan ditu beti; prestigio gutxiko lanbidea izan da, are gehiago Euskal Herrian. Iraganean kasik inork ez zuen Udaltzain izan nahi, eta idazten eta irakurtzen jakitearekin eta zoezer gehiagorekin nahikoa izaten zen. Hasi eta segituan, 80ko hamarkadan, gure aurrekoek bere gain hartzen ez zituzten makina bat ardura hartu behar izan genuen. Lanez gainezka ibili ginen; Egin kontu, Guardia Zibilen Bazkardoko kuartela agudo itxi zutela. Delinkuentzia eta drogari lotutako arazoak eguneroko ogia ziren. Heroina barra-barra zebilen gazteen artean...

la belaunaldi oso bat aurretik eraman zuen heroinak...

Izugarria izan zen! Drogak zenbat gazte ez ote zuen galbidean jarri! Nahiko azkar zabaldu zen errealitate hori, eta gainezka egin zigun. Ez bakarrik guri,



Pedro Rodriguez kaleko jantziekin ikusiko dugu aurrerantzean. AIURRI

baita gainerako polizi eta administrazioetako profesionaleri (hezitzaileei, osasun arlokoiei...). Ez geunden heroinoimanoekin jokatzeko egoki prestatuta. Askotan, mundu horretan zebiltzanak ez genituen beren egoerriko egokienean topatzen, eta haien jantzi uniformez jantzitako etsaiak ginen.

Gauetz, maiz, bakarrik egokitzen zitzaigun kalean jardutea, eta benetako izua pasatzen genuen. Gogoan daukat, gau haietako batean, orain hogeita hamar bat urte, nola hots egin zidaten Donostiako udaltzainek, herriko neska gazte bat aparkaleku batean hilik topatu zutela esateko. Gai dosiak jota hil zen. Hura errekonozitzaera joateko eskatu zidaten. Beste behin ere, Donostiatik deia: drogaz leporaino zegoen gazte bat zeukatela, eta nire izena beste ezer ez omen zuen adierazten. Hara joan, autotan sartu, eta bere etxera eramanez nuen. Handik puska batera, gaidosiak akabatu zuen.

Espainiako polizia heroinaren zapalkundearen inplikaturik egon zela salatu izan da maiz...

Esan izan da, bai. Baina nik ez dut hori frogatu dezakeen daturik, eta beraz ezin dut ezer esan.

Oso urte nahasiak izan ziren.

Horretan ez dago zalantzarik. Bi datu esanguratsuago emango dizkizut: Andoainen Gipuzkoan mugitzen ziren banku lapurrik abilenak zeuden, eta zenbait urtetan egunero-egunero, lapurtutako auto bat agertu ohi zen Andoaingo kaleetan edo Leitzaan aldean. Inguruko herrietan lapurtu ostean herrira ekartzen zituzten. Garai hartan zinemara eramanez zituzten Vaquilla eta Torete gaizkile famatuen ibilerak.

Une garrantzak bizi izango zenituen hainbeste urtetan...

Oroitzapen asko une gaiztoekin lotzea normala izan daiteke, guri dagokionez. Egunean zehar kasu ugari lantzea egokitzen zaigu, eta gehienak modu onean konpontzen dira. Baina nahikoa izaten da gertaera batek buruko mina sortu izana, edo zeuk hanka sartu izana. Bada, horixe bera izango da buruan kendu

"HERRITARREK EZ DUTE GURE LANA BEHAR BEZALA EZAGUTZEN"

ezinik edukiko duzuna, eguna joan eta eguna etorri.

Une gogor-gogorak aipatzen hasita, gertatu izan diren hilketak datoz lehenbizi gogora. Ansa abizeneko bi mutilak, Lopez de la Calle, Villafañe... Eta noski Joseba Pagazaurtundua. Kolpe latza izan zen, gure lankidearena. Adiskidea izateaz gain, udaltzain bezala oso profesionala zen. Nik uste jendeak Joseba ez zuela behar bezala ezagutu. Bere ideologia alde batera utzita, herritarren zerbitzura jartzeko orduan egundoko bokazioa zeukan pertsona izan zen.

Behin lapur batek Lanberto Otermini labana sartu zion, eta txiripaz ez zuen bertan seko utzi. Orduan ere une larriak bizi izan genituen.

Gertaera gehiago aipa ditzaket. Esate batera, Gernika kalean banatzaile batek furgonetarekin haurra harrapatu eta hil zuen. Une garrantzak pasa arazi zizkidan istripu hark, hurrengo egunetan. Zerrenda luzatzen jarrai nezake istripuekin, uholdeekin...

Aurreiritziak aipatu dituzu lehen. Bada isun-jartzaile gisa ezagutzen zaituenik...

Udaltzainok isunak jartzea ez dugu batere gogoko. Baina jarri egin behar izaten dira tarteka. Bizilagunen batek arau-haustere bat izan aparkatze okerra, izan semaforoa gorrian gaintzea... egiten badu, lehenbizikoan ohartarazten saiatzen gara. Hala ere, gauza bera egiten jarraitzen badu hurrengo egunetan, salaketa jartzea beste erremediorik ez daukagu. Legea bete behar da. Gure lana salaketa jartzea da, baina gero ez gara zigor konpultetan sartzen, alkateari, epaileari edo dena delakoari dagokio hori. Gainera, udaltzainok zuzen ez badugu jokatu salatuak badauka prozedura eskura, alegazioak jar ditzan. Hori bai, ondo oinarritutako arrazoiak azaldu behar ditu,

Andoaindarrek baloratzen al dute udaltzainen lana?

Herritarrek, orohar, ez dute gure lana behar bezala ezagutzen, eta horrek berarekin ezjakintasuna

"ERAKUNDEEN ARAZOA BUROKRAZIA DA. ETA UDALA EZ DA GAITZ HORRETATIK LIBRATZEN"

dakar. Profesionaltasunari begira, Andoaingo udaltzainek oso prestatuta daude. Beti saiatu izan naiz mezu berbera zabaltzen, herritarren artean: "arazoren bat baldin badaukazu, zatoz eta laguntzen ahaleginduko gara". Jakina, legearen barruan jokatu behar dugula ahaztu gabe. Tarteka guregana etortzen diren herritarrek uste dute arrazoa eurena dela; baina horrela ez denean gaiztoaren papera egitea egokitzeko zaigu guri.

Aipatu dudan ezjakintasun hori udal langile guztienganakoa dela esango nuke. Ataria zerbitzua adibidez, egundoko aurre-erapena da, behar bezala baloratzen ez dena. Ahaztu gabe zinegotzi izateak dauzkan lanak. Dena den, erakunde publikoen arazorik handiena, burokrazia da. Eta Andoaingo Udala ez da gaitz horretatik libratzen. Ez dut ezagutzen irtenbide majikoa, baina tramiteen kontu hori nola edo hala murriztu egin beharko litzateke. Jendeak ez du zertan administrazioko funtzionamendua jakin behar, ezta bere hizkera formala. Galdu egiten da burokrazia horretan, normala denez.

Zein ezaugarri behar ditu eduki udaltzain batek?

Herritarrei zerbitzua eskaitzeko bokazioa edukitzeaz gain, ondradua eta umila izatea. Autokritika egiten jakin behar du ere, eta hanka sartu denean onartu.

Haserreak eta etsaiak sortzen dituen lanpostua izango da...

Bat baino gehiago, bai. Behin lankide batek nire adiskide bati isuna jarri zion. Honek zer pentsatu zuen? Sarjentua adiskidea zuela eta isuna kenduko ziola horrexegatik...

Herri barneko auto-trafikoa, apar-kalekuak... kexak eragiten dituen gaia da.

Ohitura txarrak dauzkagu guztiok ere. Txikia da gure herria, eta Karrikatik Kaletxikirako bidea egiteko 20 minutu besterik ez dituzu behar... Inguruko herriekin alderatuz gero, aparlekuekin horren gaizki ez bagil-

tzala esango nuke. Baina jakina, etxe atarian nahi dugu autoa aparkatu, eta hori ezin da. Agian urrutixeago utzi beharko dugu. Nori egiten dio kalte etxera joateko metro batzuk oinez egin behar izatea? Ikastetxe orduetan sortzen diren auto ilarak-eta murriztu zitezkeen kontzientziatuko bagina, eta haurra eskutian hartu eta ikastetxera oinez abiatuko bagina.

Gure gizartean beti aritu gara gizabanakoen askatasunaren alde. Eta orain, hein batean lortu dugula iruditzen zaigunean, autoen inoiz baino morroiago gara, baita mugikorrarekin eta gainerako gailu teknologikoekin ere. Paradojiko da: materialki asetuta bizi gaitezke, baina zorientasuna falta zaigu. Ahazten zaigu bizitza honetan garrantzitsuena giza baloreak direla: hala nola, adiskidetasuna, elkabizitza, enpatia, bereikoikeriarik eza... Urkoari laguntzea, mesede bat egitea une jakin batean, horrek bihurtu beharko gintuzke zorientatu...

Andoaindarrak zer moduz gabiltza zibismoari dagokionez?

Orokorrean, ondo. Nolanahi ere, zenbait baloreetan erlajatzeko ari garen sentsazioa daukat. Errespetuan batez ere, bikoteen artean, guraso eta seme-alaben artean... Niri kalean egokitu izan zait haur bat sumatzea amari egundokoak esaten; amak zer erantzun eta "Kontuz ibili, Pedrok kalabozora eramango zaitu bestela". Zerbaitek ez du ondo funtzionatzen amaren eta hauraren arteko harreman horretan! Ikusi izan ditugu 14-15 urteko gazteak parkeko bazter batean drogak eta alkoholak kontsumitzen. Gurasoiei jakinarazi, eta hauek egoerari garrantzia kendu... Lehengo gazteen moduan, gaztea orohar ona da. Baina ez dakit zenbaiteraino ohartzeko garen, nerabegaroko urte horietan nortasunaren aldetik noraezean ibiltzeko arrisku handiagoga dagoela. Zorionez, Andoainen, lan bikaina egiten duten kale hezitzaileak dauzkagu.

"ETXERA JOATEKO METRO BATZUK OINEZ EGIN BEHAR IZATEA NORI EGITEN DIO KALTE?"

"INGURUKO HERRIEI ALDERATUTA, APARLEKUEI DAGOKIONEZ EZ GAUDE GAIZKI"



Joseba Pagazaurtundua, AIURRIko zuzendaria, bere kabinan dagoela ikusita.



Astarbe
943 551 527 Astigarraga

Gaztañaga

943 591 968 Andoain

Larre-gain

943 555 846

Ereñozu-Hernani

Mizpiradi

943 593 954 Andoain

R. Zabala

943 690 774 Aduna

Sarasola

943 690 283 Asteasu

Sagardoa Route

943 336 811 Gipuzkoa

Hotel K10

943 337 357 Urnieta

Amasa-Villabonako Udala

943 692 100

Andoaingo Udala

943 300 830

Urnietako Udala

943 008 000

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Udal hauteskundeak: EAJ-PNV

Andoain herri abertzalea da. Udal hauteskundearen emaitzei erreparatuta, horixe ondoriozta daiteke. Eta abertzalea ez bada, norbaiti botoa ematea eta lotura ideologikoa uztartzea gustatzen ez bazaio, alderdi abertzaleek gehiengoaren konfiantza pizten dutela esan daiteke. 1999an, EH eta EAJ-PNVren artean, 17 zinegotzietatik 10 eskuratu zituzten. Ilegalizazioaren urteak iritsi ziren, ondoren. 2015ean, 17 zinegotzietatik 10. Goruntz edo behar mugitu daitezke zertxobait ordezkaritza, baina joera bat egonkortu egin da: bi alderdien ordezkaritzaren baturarekin gehiengo osoaren langa erraz gainditzen da.

Baten batek pentsatu dezake datuok alderdi abertzaleen arteko elkarlana sustatzeko erabiltzen ari naizela. Ez doa aste honetako zutabea norabide horretan. Legitimazio kontuaz ari naiz. Andoainen jeltzaleak ezker abertzalearen pareko sentitzeko arrazoioak badituzte. Ez daude hain urrun, eta maiatzean EH Bildurekin eta PSE-EErekin nor baino nor lehiatzeko prest daude. Botoetan ezker abertzalea eta sozialistak aurretik dituzte, baina distantzia txikitzen ari dela adierazi zuen 2015eko emaitza orokorrak. Orduko hartan, gainera, Andoaingo EAJ-PNVk 11 botora izan zuen bosgarren zinegotzia eskuratzeko aukera. EH Bilduk eskuratu zuen D'Hondt zenbaketa sistemaren arabera jokoan zegoen azken eta hamazazpigarren zinegotzia.

Zenbateraino izango litzateke ezberdina agintaldia, EAJ-PNVk bosgarren zinegotzia eskuratu izan balu? Erantzunik ez duen galdera airean. Eta zalantzak, batzuk badaude, EAJ-PNVren baitan. Gregorio Olasagastiren pertsonarengan irudikatu zen krisi hark zer nolako eragina izango du aurtengo hauteskundeetan? Eta, gizarte mailan, pentsiodunen asteroko hitzorduek jeltzaleen aurkako botoa eragin al dezakete?

Bestalde, goi mailako politikak mesede egiten dio Andoaingo EAJ-PNVri. Bereziki, Jaurlaritzakoak. Iritzi publiko zabalean erakundeak oreka eta segurtasuna eskaintzen dituelako.

PSE-EErentzat jeltzaleekiko harremana zaila da. Erakunde askotan lankide dira, baina Andoainen ez. Eta hori gutxi balitz, botoetan herrian sozialistak beharrezko joera erakusten ari diren bitartean (2062 boto 2011n; 1887 2015ean), jeltzaleak goruntz doaz (1363 boto 2011n; 1750 2015ean). Hauteskunde kanpainaren atarian, lehiakide zuzenak dira. Gero gerokoak.

EH Bildurentzat zaindu beharreko gupila da EAJ-PNVrena. Sprint luzea dago maiatzaren 26ra arte. Agintzeak higadura eragiten badio, garaipenerako lehiari, ezin baita inor baztertu.

POSTONTZIA

TOKIKOM TOKIKO HEDABIDEEN ELKARTEA

Gara eta lan-taldearekin elkartasuna

Tokikom euskarazko toki komunikabideen elkarteak bat egin du Gara egunkariarekin eta hango lankideekin. Aiurri hedabideak Tokikom elkartearen kide da.

Adierazpena: "Atzokoak egun alaia izan behar zuen GARA egunkariaren lankideentzat. Hogei urte bete ziren lehen zenbakia argitaratu zutenetik, eta ospatzeko moduko lorpen handia da hori, batez ere komunikabideentzat bizi dugun aro zail honetan.

Aitzitik, poztasun zantzurik ez genuen sumatu GARAREN

TOKIKOM

arduradunek egunkariaren urteurrenean egindako agerraldian: erredakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datoen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, zer eta Espainiako justiziak berak legez kanpokotzat jotako EGIN egunkariaren itxieraren ondorioak ordaintzeko.

Lerro xume hauen bidez, Euskal Herri osoko 66 toki komunikabide batzen dituen Tokikometik GARARI ezarritako zor horren bidegabekeria publikoki salatu nahi dugu, komunikazio proiektuaren bideragarritasuna kolokan jarri prentsa askatasuna eta aniztasuna ere kaltetzen dituelako, eta elkartasuna adierazi nahi diogu GARAREN lan-talde osoari. Toki komunikabideetan oso jabe gara prentsa aniztasunak duen garrantziaz, eta haren alde diharduenak ondoan izango gaitu".

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
ALJATUAK: nesteez
TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA
Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia
Hizuntza Berlitasmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: 2017 Bitarn
BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA

"Altzari guztietan beherapenak izango ditugu"

MARISA ITURBE URNIETAKO ITURBE ETA NEI ALTZARIAK

Amaia Senperena URNIETA

Erakuslehoetan ikusgai ipintzen dituzten altzariak saldu ahal izateko azoka berezia egiten dute urtero, Igarategi industrigunean dagoen negozioan. Urnieta gehiegi ezagutzen ez duenarentzat, tren geltokitik gertu dago.

Zer dela eta ekimen berezi hori?

Gure helburua urtero erakuslehoia aldatzea da. Eta hori egin ahal izateko ikusgai ditugun altzariak saldu behar ditugu. Gainera, azoka aprobetxatuz, gure dendetako artikulu guztietan beherapenak egiten ditugu. Aukera polita da, beraz, gure saltokietako edozein artikulutan beherapenak aurkitzeko.

Zein izaten da azokara gerturaten den bezeroaren profila?

Gehien-gehiena inguruko herrietako jendea izaten da. Hernani, Andoain, Lasarte-Oria eta batez ere urnietarrak.



Marisa Iturbe. AIURRI

Azoka dagoeneko ezaguna da inguruko artean.

Bai, urtero garai beretsuan egiten dugu azoka eta inguruko artean ezaguna dela esango nuke. Aldizkarien eta irratien laguntza ere oso

ongi etortzen zaigu, jende gehiago erakartzeko.

Zuen azokak, besteekin alderatuta, zer du ezberdina?

Gurea ez da artikulatu txikiz beteriko azoka. Zer hobea beherapenak artikulatu

guztietan aurkitu ahal izatea baino. Hau guztia, gainera, kalitatezko produktuetan eskaintzen ari gara.

Ze altzari mota izaten da arrakasta gehien izaten duena?

Gure altzarien artean arrakasta gehien izaten dutenak sukaldeak dira. Ospe hori iraganetik dator. Aurten 55 urte beteko baititugu sukaldeak egiten. Salmentan beranduago hasi ginen. Beraz, jendeak gehienbat sukaldeengatik ezagutzen gaitu. Baina badira 12-13 urte Nei Muebles Kit Altzariak ireki genuenetik, eta 8 etxe guztirako altzariak saltzen hasi ginenetik.

Modak ere eragina izaten al du altzarien salerosketarako garaian?

Bai. Hain zuzen horrexegatik gogoko izaten dugu gure erakuslehoiak aldatzea. Kuxinak edota zuntzak aldatzea errazagoa izaten da. Gakoetakoa urtean modan dauden koloreetara egokitzea da.

Zuen azoka berezira joatekotan dagoenari, zer esango zenioke?

Bueltatxo bat egin dezatela, deskontu handiak topatuko baitituzte. Gauza politik aurkituko dituzte bertan eta bisitaldiak merezi duela esango nieke. Gerturatu eta bota dezatela begiradaxo bat.

HAU ERE BADUGU!

Pertsona bat hil zen lan istripuan



Astelehen eguerdian zabaldu zen albistea, eta Aiurri izan zen gertaeraren tokira iristen lehenakoa. Zizurkilen izan zen, baina inguruotan ezbeharra arreta handiz jarraitu zen. Udalak ordu gutxira oharra argitaratu zuen, doluminak adierazi eta kezka agertzeko. Ez da gutxirako, azken aldi honetan hiru langile hil baitira lan istripuz.

Konpontze lanak Erroitz kalean



Arriskua nabarmena zen, erortzeaz zegoen zuhaitza handi samarra zelako. Kezka hori maiz adierazi zuten Erroitz kaletik igarotzen ziren herrikideek. Joan zen astean konpontze lanei ekin zieten. Beharginak azkar batean aritu dira lanean, oinezkoiei eta gidariei ahalik eta eragozpen txikiena eragin nahian.

Suhiltzaileen parte hartzea Txitibar plazan



Ondoezik zegoen bizilagun bat, eta suhiltzaileek harengana iristeko eskilargarabia erabili behar izan zuten. Behin etxera sartuta, pertsona hori erizainen zaintzapean jarri zuten.

AURRERAPENA

"Konponbidea, demokrazia, libbertat"

"Elkartasuna aterpe", horiexek Gure Esku Dagok erabiliko dituen leloetakoa. Kataluniako ordezkari politiko independentisten aurkako epaiketa hastear da, eta egun hauetan Euskal Herriko Gure Esku Dago gizarte mugimenduan zein erantzun eman aztertzen ari dira. Laster iragarriko dituzte mobilizazioak. Andoain, ziurrenik, datorren otsailaren 12an elkarretaratzea antolatuko dute. Gipuzkoa mailan, manifestazioa antolatzeokotan daude. Azken konfirmazioaren zain, otsailaren 17an eguerdiko 12:00tan abiatuko da Donostiako Katalunia plazatik.

EFEMERIDEA

ETAk Jose Diaz Perez Guardia Zibila hil zuen Andoainen, duela 40 urte

Garai hartako kroniken arabera, atentatua iluntzeko 20:00ak aldera gertatu zen. Otsailaren 3a zen, 1979. urtean. Bazkardoko eraikin batean zegoen, orduko hartan, Guardia Zibilaren kuartela. Kanpoaldean hiru Guardia zibil zeuden, eta metrailetak erabiliz hiru ETAKidek haien aurka egin zuten.

Erasoan Jose Diaz Perez larriki zauritu zuten. Donostiako Poliklinikara eramanez arren, ordu gutxira hil zen. Kordoban jaioa, 25 urte zituen. Libertaddigital.com webguneak atentatu hartako bi zaurituen izenen berri

ematen du: Miguel Madariaga Lope teniente eta Antonio Piqueras.

Madariaga Zaragozako zen, eta 30 urte zituen orduan. Larriki zauritu bazen ere, bizirik atera zen. Piqueras Albacetekoa zen, eta arinki zauritu zuten. Gertaera hark eragin psikologiko handia izan zion Piquerasi, eta Guardia Zibila izateari utzi zion. Haur baten aita zen, garai hartan.

ETAkideek Guardia Zibilak tirokatu eta gero, ibilgailu batean ihes egin zuten. Kontrolak ipini zituzten arren, ihes egitea lortu zuten. Otsailaren 5ean, hedabide



ezberdinetara bidalitako komunikatuan, ETAK beregain hartu zuen Andoaingo kuartelaren aurkako atentatua.

Joan zen igandean gertaera hartatik 40 urte bete ziren.

ADIERAZPENAK

2019KO ANDOINGO UDAL AURREKONTU PROPOSAMENAREN IRAGARPENA ERREDAKZIOIRA IRITSITAKO ALDERDI POLITIKO EZBERDINEN BALORAZIOAK

EH BILDU

Pasa den asteartean, urtarrilak 29, ogasun batzordean 2019. urterako aurrekontu proiektua aurkeztu zen. Proiektu hau Ehbildu, Ganemos, Irabazi eta atxikitu gabeko zinegotziaren artean landu da.

2018. urteko aurrekontuaren onarpenetik, “elkarlanean aritu gara, eta aurrekontu proiektu hau elkarlan horren emaitza da” azpimarratu dute.

2019. urterako aurrekontua, 22.850.759 euro izango da. 2018. urtekoarekin alderatuz 600.000 euroko (22.209.642 euro) igoera bat izango dugu.

Izaera soziala duten eta 2018. urtean martxan jarritako programa ezberdinak finkatzen dira. “Ongi etorri eskolara”, pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntzak, enplegu sozialerako planak edo emakumeen jabeakuntza eskolak besteak beste. Inbertsioen atalari dagokionez, Arrate

Frontoiak izango du partida nagusia, 617.556 euro. Bi urteetan egin beharreko inbertsioa delako, 2018 eta 2019 artean hain zuzen ere. Alokairu sozialean esleitzeko udal etxebizitzak eraberritzen jarraitzeko 50.000 euro gehiago bideratuko dira. Alokairu hauek uda aurretik martxan egotea aurreikusten delarik.

Herriko merkataritza berrindartzeko helburuarekin, 68.000 euro bideratuko dira partida ezberdinetan. Iazko 28.000 euroak kontutan harturik, igoera garrantzitsua proposatzen dugularik. Partida berri hauekin, herriko merkataritzari bultzada bat ematea espero dugu. Jarduera kulturalen 50.000 euro igotzen dira, eta horrela 401.000 euro bideratuko dira. Eskualdeko enplegu planek sei udalerrien artean adostutako igoera izango dute. 2019. urteko kudeaketa planaren bidez, orain arte martxan

jarritako programa guztiak mantenduko ditugu. Enplegu soziala, fabrikazioa 4.0., ekintzailatza zerbitzua, edo bazterketa arriskuan dauden pertsonei begira egiten diren formazio eta enplegu programak. Olagain auzoan ur zikinak kanalizatzeko proiektua amaitzen ari garenez, hau amaitzean plenora eramango da, dagokion diru partida ezartzeko.

Alderdi guztiak akordioarekin pozik agertu dira. Ehbilduk azpimarratu duenez, aurrekontu hauekin “agintaldi oso garrantzitsu bati amaiera emango zaio. Garrantzitsua, ahuldade ekonomikoarengatik krisi instituzional gogor bati buelta eman zaiolako batetik, eta atzetik zetozen arazo sakon batzuk konponbidean jartzeko oinarri sendoa jarri delako bestetik”. Hau dena, urte hauetan guztietan “gizarte eta kultura arloan

herrigintzan eman diren aurrerapausoak eta sortu diren sinergiak ahaztu gabe”. Bestalde Ganemos, Irabazi eta atxikitu gabeko zinegotziak aurretik esan denarekin ados agertzeaz gain, euren ekarpena gehitu nahi izan dute. “Elkarlan eta akordio hauek ezinbestekoak izan dira bai bi haur parke estaltzeko prozesuari begira, skate-parkaren proiektuari begira edo udaletxeko igogailuko obra martxan jartzeko adostasuna lortzeari begira. Horretaz gain, tasak modu progresiboan aplikatzeko bideari ekin diogu, Galardi haur eskolan lehen urrats bat eginez, eta kale garbiketarekin egin den bezala, udal zerbitzuen publikazioari bultzada bat emateko. Ezinbestekoak diren gaiak guretzat”. Aurrekontu hauek otsailean zehar eramango dira plenora onartuak izan daitezten.

EAJ-PNV

EHBilduk aurrekontuen inguruan eginko azken agerraldian erakutsitako jarrera “prepotentea eta triste” izan da. Izagirren iritziz, ezin liteke guztiz itxiztat eman duten proiektu bat publikoki aurkeztera ateratzea; “otsailean zehar plenora eramana eta onartua izango dela” aurreratzea akatsa da, gainerako oposizioiko udal taldeak eta haien lana gutxien baititu. Jeltzaleek ez dute bat egiten gobernu taldeak adierazitako jarrerarekin, “iraganeko politika egiteko moduekin” erlazioztatzen baitute, “kontsentsu eta

adostasun zabalak bilatzen irunduz”. EHBilduk aurrekontuak aurrera ateratzeko beharrezko gehiengo matematikoa baduen arren, Izagirren esanetan “ez dugu ulertzen nola aplikatzen duten rodilloa, gainerako alderdiek egin ditzakegun aportazioak eta hobekuntzak gutxietsiz”. Azken gertakariak desegokiak izan diren arren, EAJ-PNVtik adierazten dute “jarrera eraikitzailearekin lanean jarraituko dutela, hobekuntza proposamenak aurkeztuz, Andoainentzako onuragarri diren ideia eta proiektuak sustatuz”.

GANEMOS, IRABAZI, PODEMOS AHAL DUGU

Legegintzaldi osoan egin moduan, aurrekontu hauek eta bere exekuzioa udal politiketan aldaketa nahi duten ezkerreko indarren arteko negoziatioaren eta bateratze lanaren fruitu izan dira. Politika sozialerako, gure herrikideen ongizatean eta gure baliabideen kudeaketa garden eta eraginkorrean oinarritutako aldaketa bat. Ikusi ahal izan den eta egiten jarraituko den aldaketa bat: haur parkeen estalpeak, udal etxebizitzak birgaitzea alokairu sozialerako, hondakinen kudeaketa, tasen progresibotasuna eta zerbitzuen

birnuztopializazioa; esaterako kale garbiketarena edota proiektuan dauden beste hainbat. Ezta gehiengoan gobernatzen duenak ere ezin dituzte egin aurrekontu ideal batzuk, eta hauek ere ez dira gure ametsetako aurrekontuak, baina egungo egoeran negoziatu ahal izan ditugun onenak dira. Bizilagunei helarazi nahi diegu populazioaren gehiengoaren alde egiten duten iniziatiba guztiak babesteko ditugula, izan oposiziotik edo gobernu ardurak ditugun egunean.

Andoain hobe baten alde. Bai, posible da!



Andoaingo Piano Jaialdia datorren Aiurri astekarian:



Sabina Arruarte, 2007ko irailean, Aiurri astekariari eskainitako elkarrizketan. AIURRI

Sabina Arruarte euskaltzalea

Otsailaren 2an Sabina Arruarte Makazaga Urnietako euskaltzalea zendu zen, 96 urte zituela. Egungo ikastolaren sustatzaileetakoa izan zen, eta hain zuzen horrexegatik 2007ko Sanmieletan Urnietako Udalaren omenaldia jaso zuen

Hemeroteka

Aiurri.eus [2007-09-21]

Alaba ikastolan, giro euskaltzalean hezteko. Hori zen Sabina Arruarteren nahia, baina urnietarrak ez zuen hori lortzeko bide samurra izan. Pixkanaka, ordea, lehen urratsak ematen hasi zen. Hernanin Maripi Sarasola irakaslearen berri izan zuen, gerora, Egapeko lehen irakaslea izango zena. Biek Lazkaon zen Hiazinto Fernandorenarengana jo zuten. “Apustu bat zen. Legez kanpo zegoenaren aurka joan beharra zegoen”, oroitzen du Sabinak.

Ez zuen buruhauste gutxi izan, ez berak ezta berarekin batera haien asmoak errealtate bilakatu nahi zituztenek. Beldurra zen nagusi. Ikastolen mugimendua legez kanpo izanda eta orduko testuinguru politiko eta soziala kontuan hartuta, guraso batek

baino gehiagok pentsatu behar izaten zuen seme-alabekin zer egin, ikastera nora eraman. “Ausartu egin behar zen”, dio Arruarrek. Orduko oztopo eta egoera zailei aurre eginez, bat baino gehiago izan zen seme-alabak

garai hartako Sarobeko lokalera eraman zituenak. Hura izan baitzen, ikastolako lehen gunea.

Udalean eta garai hartan elizan bertan izandako kargu aldaketek, onerako edo txarrerako, eragina izan zuten. “Parro-

koz aldatu zutenean, hark erraztasunak eman zizkigun. Baina oztopoak ere bai”, oroitzen du Arruarrek. Hainbat bilera izan zituzten salesiarretako arduradunekin, alkatearekin. “Ikastolarik ez zegoela jartzerik esan ziguten”, adierazi du. “Sarobeko lokala utzita, lehenbizi egin zutena, Francoren erretratu handia jartzea izan zen”, gaineratu du.

Maripi Sarasola irakaslearekin hogeik ikasleko taldea bildu zuten. “Lurrean manta batzuk jarri eta hogeik ume txiki han, euskaraz hitz egiten”. Hala, lehen urnietar taldea, euskarazko irakasgaiak jasotzen hasi zen.

Oztopoz oztopo, aurre eginez

Lehen pausoak eman bai, baina diru-iturririk ez eta horren beharrez ziren. Ez ziren besoak gurutzatuta geratu. Herri mailan hara eta hona ibili zen beste herritar batzuekin batera, Sabina bera. “Etxez etxe diru bila, 10 pezeta eskatzen aritu ginen. Estimatzekoa da, batzuek oso ondo erantzun zuten”, adierazi du urnietarrak. Horrez gain, tonbolak eta antzerki emanaldiak ere antolatu zituzten. Lagun izan zituen Maria Arizmendi, Antselmo Unanue eta Xabier Larraetxea.

Oso atseginak ez ziren bisitaldiei ere nola edo ahala aurre egin behar izaten zieten. Ikuskariak ez baitzuten ezer barkatzen. Edozein kasutan, garaiz jakin eta egoerari konponbidea bilatzen zioten. “Hernanira etortzen zirenean, segituan Urnietara deitzen zuten. Andereñoak ume guztiak hartu eta mendira joaten ziren. Ikuskariak etortzen zirenerako inor ez zen izaten”, gogoratzen du Arruarrek.

Ez du berehalakoan ahaztuko 1966.urtea. Orduko hartan lega-

lizatu baitziren ikastolak. Eta herrikoa Gipuzkoa mailan aitzindarietakoa izan zen, Legorreta edota Donostiakoekin batera. “Lasaitasun ederra hartu genuen”, adierazi du Sabinak.

Egape, babesa izenarekin baitaiatu zuten ikastola. Elvira Zipitriak, ikastolen mugimenduan zeresan handia duen emakumea arduratu omen zen hortaz. Pozik ikusten du orain, ikastolek egun bizi duten unea; orduan egindako lanari esker egoera normaldu baita.

Sabinari txikitatik zetorkion euskararekiko sentsibilizazioa. Sei anai arrebako kidea, bederatzi urterekin hasi zen lanean; asto txiki batekin esnea banatzen. Mendi zalea, Adarramendi oso gustuko lekua zuen. Eskolan halakorik ikasi ezin, eta Gurtziara, bere etxera joan eta aita haiena zen ama-hizkuntza, euskaraz, irakasteaz arduratzen zen. Aitaren artikuluak gerra aurretik, Argia aldizkarian argitaratzen ziren, baserritarren kroniken atalean. “Gure aita karrerako jendearekin ibiltzen zen. Txikitatik euskaraz irakurtzen eta idazten irakasten zigun. Koadernoetan lekzioak jartzen zizkigun”.

Omenaldia, San Miguel egunez

Sabinaren nahia bete zen. Alaba ikastolan hezi zuen. Orain, garai hartan egindako lanaz zoriondu eta ondo merezitako eskerrak jasotzeko garaia iritsi zaio. Arruarrek eta berak bezala beste hainbaten izerdi eta lan neketuari esker milaka ikasleek eredu euskaltzale batean ikasteko aukera baitute. Sabinak eskerrak eman nahi dizkie, lagundu zutenei eta tartean, bere hitzetan, “gurasoei, urte haietan emandako konfidantzagatik. Meritu handia zuten”.





Adarra eta akordeoiak lagunduta, kantuan aritu zen herritar taldea. AIURRI

Euskal Herriko eguna

70 lagunetik gora irten zen kantuan, astelehen arratsaldean. Herrigunean kalejiran ibili ondoren, Ontza elkartean barazuri zopaz gozatu ahal izan zuten. Elkartean gauerdira arte luzatu zen ospakizuna, nola ez, kantuan igaro zena

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Errondako kideak txaloz hartu zituzten, Joakin Larreta aldeko bizilagunek. Biziki eskertu zie-

ten horrela, herrigunetik irten eta auzunera gerturatu izana. Kalez kale ibili eta gero, Larramendiren eskulturaren inguruan

amaiera eman zioten errondari. Datorren urteari begira, Berrozpe etxean ere kantu egitekoak dira.

Hogeita sei urtez jarraian



Lehen saioa Dr. Huitzin egin ohi dute, Bazkunaren egoitza parean. AIURRI

Abiapuntua Dr. Huitzik Ikastetxeetan tradizioa biziberritu zuten bitartean, talde handi samarra ibili zen ohitura zaharra Andoaingo herrigunean zabalitzen. Ikastetxeetako ordezkariak, euskaltzaleak eta Larramendi Bazkuneko kideak kalez kale ibili ziren.



Bastero aldera abiatu ziren, Dr. Huitzi kalean hasi eta gero. AIURRI

Afari ederra Ontza elkartean laz sukaldari taldea omendu zuten. Ez dute horregatik erretiroa hartu, eta aurtengorako ere afari ederra prestatu zuten: Barazuri zopa, arraultza frijituak, txorixo egosia, gazta eta menbriloa, kafea eta kandida opiltxoak. 12 euroko menu dotorea.

Ohitura zaharra biziberritu zuten Urrietako herrigunean



San Juan plazatik Denda Berrirako bidean, kantuan aritzeko geldialdia egin zuten.



Lekaion azken entsegua egin eta gero, San Juan plazara hurbildu zen kantu taldea.

Plazan bertan dagoen Santa Leokadia ermitara begira egin zuten lehen kantu saioa. Handik Denda Berri aldera abiatu ziren, tartean geldialdia eginez. Handik Idiazabal kalera joan ziren, iluntzerako amaiera emateko. Ikastetxe bakoitzean Santa Ageda bezperako ohiturari eusten badiote ere, helduen taldeak ez du hutsik egiten. Arratsaldeko 17:00tan abiatu ziren, aurretik Lekaion entsegua egin eta gero.



Goiburuarrak bazkalostean abiatu ziren kalejiran. Bidean zehar hainbat baserritarrei bisitaldia egin zieten. AIURRI



Xabier Jauregi eta Nekane Zabala. AIURRI



Juantxo Lopez de Munain. AIURRI



Nagore Ormaetxea eta Ander Zabala. AIURRI

Goiburuko haur, gazte eta helduak bazkalostean abiatu ziren baserriko erronda egitera; Nekane Zabala esku-soinu joleak

doinua jarrita ibili ziren. Bidean barrena Unai Ormaetxea eta Ion Beloki batu zitzaizkien, bertso koplatan arituz. Guztiek ere

Txertotan afari legea eginez amaitu zuten jaia. Andoainen kalean eta landa eremuan, bietan ospatzen da otsailaren 4a.

Puska-biltzea, Sorabillatik Buruntzara



Iaz Sorabilla aldean ibili ziren puska biltzaileak. Aurtengoan Buruntzara doaz.

Iaz Sorabilla aldean ibili ziren Andoaingo axeriak, neguko ospakizuna biziberritzen. Puska biltzea auzoz auzo egiteko joera dute Andoainen, eta aurtengoan Buruntza aldera joatea erabaki dute. Ekimen irekia da, eta parte hartzea andoaindar orori zabalik dago. Datorren otsailaren 16an irtengo dira, goizean goizetik. Ekimenean parte hartzeko e-posta honakoa da: andoaingoaxeridantza@gmail.com.

Egunean eguneko albisteak sarean




Ezbehar larria lan munduan



Konponketa lanak herrigunean



Denboralearen zeharkalteak



Ezusteko gertaerak herrigunean



Sarobe kulturunea ikuslez bete zen, larunbat arratsaldean. Joxemari Berasategiren zuzendaritzapean, Egape antzerki eskolako ikasleek antzeppen bikaina eskaini zuten. UDALA

Punta-puntako instalakuntza

“Erabiltzaileen beharrei erantzungo dien punta-puntako kiroldegia” izango dela ziurtatu zuten Mikel Pagola alkateak eta Jorge Segurado zinegotziak, joan zen urtarrilaren 31n Lekaion egin zuten aurkezpen ekitaldian. Kostua 8 milio eurokoa da

Xabier Lasa URNIETA

Pagolak eta Seguradok Urnietako kiroldegi berriak izango dituen ezaugarriak eta eskainiko dituen zerbitzuen berri eman zieten Lekaion bertaratu ziren herritarrei.

Banakako erabiltzaileei, kirol federatuen dabiltzanei eta Eskola Kirola eskolarteko egitasmoan arituko direnen beharrei erantzungo dien instalakuntza izango dela adierazi zuten. Aldi berean, aisialdi, musika eta kultur alorrean lan egiten duten elkarte eta eragileek ere erabi-


li ahal izango dutela erantsi zuten, horretarako egokitutako espazioaren erabilera baliatuz.

Ikuspegia etorkizunean jarritako jokatu dute, hamarkada batzuetarako urnietarrentzat baligarria izango den kirol instalakuntza landuz.

Eraikin berriak hiru solairu edukiko ditu. Behekoan, aldagelak eta gela desberdinak (muskulazioa, spinning, arte martzilaka, balianiztuna...) kokatuko dira. Lehenengoan, kirol pistak, eta padel eta teniseko pistak. Bigarrengoan, ikusleen

eremura bideratuko da, kirol pisten harmailetara eta futbol zelaira. Igerilekua estalia ez dela jasangarria adierazi zuten, agerraldi berean: “Mantenu gastua 400.000 euro handituko litzateke, urtero”.

KIROLDEGI BERRIAN IGERILEKU ESTALIA ERAIKITZEA EZ DELA JASANGARRIA ADIERAZI ZUTEN



Sarbidea horixe izango dela aurreikusten da. UDALA

Pausoz pauso

Sabai Arkitektuak S.L.k irabazi zuen erreformaren proiektua idazteko lehiaketa publikoa. Eta 2016tik hona herriko klub ezberdinekin, udal teknikariek eta udal alderdi politikoekin kontsultak egin izan dituzte. 2018ko azaroko udalbatzan 8 milio euroko kreditu aldaketa onartu zuten. Eta abenduko batzarraldian, berriz, proiektua gauzatzea erabaki zen.

Otsailaren 19ra arte eraikuntzan interesa duten enpresek euren proposamenak aurkeztu ahal

izango dituzte. Eraberritze lanekin uda ostean hasiko dira. Obrak sei bat hilabeteren buruan amaitzea espero dute. Obrak iraun bitartean, ikastaroak eta ohiko jarduerak mantentzen saiatuko da Udala, teniseko pista salbu.

ERAIKITZE LANEK IRAUN BITARTEAN, IKASTAROAK ESKAINTZEN SAIATUKO DIRA



Parte hartzailea izan zen Urnietako Udalak egin zuen aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Aurkezpenera hurbildu zirenen iritzia

Pagolak eta Seguradok Udal ordezkariak eraikuntza berriari buruzko hainbat xehetasun azaldu ostean, galderak egiteko eta iritzia azaltzeko tarte ireki zuten.

Aurkezpen ekitaldira azaldu ziren hogeita hamar bat urnietarrak iritzia emateko gogoz heldu ziren Lekaiora, eta eztabaida bizia eta aberatsa piztu zen. Hitz hartu zuten gehienek igerilekua hizpide izan zuten, eta desadostasuna agertu zuten kiroldegi berrian igerilekua orain bezala agertzen delako. Estali gabe, alegia.

- Hona zenbait iritzi, laburtuta:
- "Jende ugari eskualdeko beste igerilekuetara joaten da egunero, Urnietan ez dugulako igerileku estalirik".
 - "Ez dira kontuan hartu egunero Urnietatik beste herrietara joaten direnek zer nolako gastua egin behar izaten duten".
 - "Beste batzuk ez dira kanpora irteten, baina bertan edukiz gero abonatu lirateke".
 - "Zergatik Usurbilen bai, eta hemen ez?".
 - "Belardiak zaintzen dirutza ari gara xahutzen; zenbait politikak direla irudituko zaie, baina nik nahigo dut dirua igerileku estalira bideratzea".
 - "Ikuspuntu ekonomizista alde batera utzi beharko litzateke,

eta gehiago begiratu estaltzeak osasun publikoari eragingo liokeen mesedea".

- "Urnietako biztanleria ziurrenik haziz joango da etorkizunean, eta eskaera ere handitu egingo da".

Pagola eta Seguradok parte hartzaileen argudioei erantzuten saiatu ziren. Arrazoi nagusia bakarra da: Mantenimendua kostuagatik baztertu da estaltzearen aukera. 2015ean egin ziren aurreikuspenen arabera, 400.000 euro beharko lirateke urtean; lau urte beranduago gastu hori zertxobait igoko zen. Pagolaren hitzetan, "Urnietako urteko aurrekontu osotik milioi bat euro mantenimenduko inbertsioetara bideratzen dira; beraz, igerileku estalia jarri gero, Udala inbertsioetarako ahalmenik gabe geratuko litzateke. Usurbilgo kasuak baditu ezberdintasunak; izan ere, industria ugari dauka eta horrek eragiten dio Urnietak baino 2,5 milioi euro gehiagoko aurrekontua maneiatzea".

IGERILEKUA ESTALTZEAREN ALDEKO IRITZIAK ENTZUN ZIREN BILERAN

DUEN KOSTUAGATIK, ESTALTZEKO PROPOSAMEN HORI BAZTERTU EGIN DA

Seguradok gaineratu zuenez, "Aldundiak egin duen ikerketaren arabera, Urnietaren biztanleri kopuru berbera duten herrietzat (6.000 gutxi gora behera), igerileku estalia ez da bideragarria".

Nolanahi ere, udal ordezkariak ez zuten baztertu etorkizunean igerilekua estaltzea. Hori bai, horretarako, ziurrenik, Urnietako biztanleriaren zein kiroldegiko abonatu kopurua boikoiztu egin beharko litzateke, eta horrelakorik gertatzea zail ikusten dute.

Igerilekuaz gain, beste zenbait gai ere izan zituzten mintzagai. Horien artean parte hartzaile batek padel pista auzitan jarri zuen. Mikel Pagolak erantzun zion moda kontuak izaten direla, eta egun, erabiltzaile asko dituela. "Biharko egunean, moda beste nonbaitetik badoa, oraingo pista beste jardueraren bat egiteko nahiko erraz egokitu ahal izango da".

Beste parte hartzaile batek kiroldegi berrian saskibaloiak, boleibolak edota mahai-tenisak ez duela tokirik izango ondorioztatu zuen. Erantzun ziotenez, Urnietako Udala herrian lan egiten duten kirol taldeen eta kirolarien beharrei erantzuten saiatu da.



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

Kirol gune itxiak naturgune ederrean

Udal kiroldegiaren erreformarako proiektuan pauso berri bat eman zuten aurrera, Lekaion egin zuten aurkezpen ekitaldiarekin. Aurretik, makina bat gauzatu dira: hainbat eragileekin kontsultak (kirol taldeak, kirolariak, teknikariak, alderdi politikoak...), parte hartze prozesua, lehiaketa publikoa eta proiektuaren erredakzioa, pleno ezberdinetan kreditu aldaketa eta proiektua onartzea...

Urtarrilaren 31n, berriz, herritarren aurrean behin betiko proiektua aurkezteko txanda heldu zen. Hogeita hamar bat zenbatu nituen. Kiroldegi berriaren inguruko xehetasunak entzutera joan ziren gehienak, baina batez ere, kexa eta pena agertzerak. Bereziki, ez dutelako igerilekua estaliko.

Ez naiz urnietarra, eta ez dakit zein den bertan bizi diren 6.000tik gora biztanleen gaiaren inguruko iritzia. Ez dakit gehiengo baten sentimenduen ordezkari ote ziren Lekaiora hurbildutakoak. Eskamentuak esaten baitit, normaleki, gehiengo batek iritzia eduki, edukitzen duela. Eta oso zaleak izaten gara lagun artean-eta adierazteko, kritikak honi eta hari egiteko. Baina gero, horretarako tokiak eskaintzen zaizkigunean, orduantxe mutu geratzen gara.

LEKAION EGUNGO GIZARTE KOPLEXUAREN ADIERAZLEAK AGERTU ZIREN

Kanpotar baten ikuspegitik, ulergarriak egin zitzaizkidan kexu zirenen arrazoiak. Baina are ulergarriagoak igerileku estaliaren bideragarritasun eza defendatzeko udal ordezkariak emandako argudioak. Azken batean, herritarren osasunaz eta aisialdiaz hitz egiten hasten bagara, edota udal

aurrekontua zertan xahutu eta zertan ez... era guztietako arrazoiak irtengo zaizkigu. Nork bereak edukiko ditu, eta zaila izango da denenak asetzea.

Igerikuaren aferaren aitzakitan, Lekaioko ekitaldian, egungo gizarte konplexuaren -eta modernoaren?- zenbait adierazle azaleratu zitzaizkigula esango nuke. Interes orokorreko udal gaiek ukitzen gaituzte eta mugiarazten, baldin eta gertu-gertutik ukitzen bagaituzte. Kirola gero eta gehiago praktikatu nahi dugu, eta intsalakuntzei dagokionez geroz eta exijenteagoak gara. Kirola naturan praktikatu ahal izateko leku pribilegiatua bizi gara, baina makinez jositako kaiola moduko toki itxietan sartzeko amorratzen egoten gara.



Sarbiderearen maketa. UDALA



Emakumezkoen eta gizonezkoen podiuma, zazpi kilometroko lasterketa amaituta. AIURRI

On Bosko krosa

Negu giroak ez zituen korrikalariak beldurtu, eta beste behin ere parte hartze polita izan zen Urnietako lasterketan. Lasterkariet gain, ipar martxako kirolariek erakustaldia eskaini zuten herrigunea zeharkatzen duen kirol proban




Jon Vidaurreta. AIURRI




Aitor Iturralde. AIURRI




Imanol Andres. AIURRI



Begoña Cao. AIURRI



Edu Portillo. AIURRI



Pilare Goenaga. AIURRI

Bi probatako sailkapenak, herriz herri

Lasterketa (7 Km.):

Emakumeak:

1 Lourdes Colomo	28:39
2 Garazi Artola	28:54
3 Laiane Arrospide	28:56

Gizonak:

1 Ander Lazkano	23:48
2 Raul Gomez	23:56
3 Juan Luis Gomez	24:06

Andoain:

9 Edu Portillo	25:42
17 Maikel Gomez	26:39
20 Axier Etxeberri	27:15
47 Angel Carrasco	30:55
60 Enrique Miguel	35:00
61 Patxi Nieto	35:07
62 Almudena Ramos	35:13
64 Begoña Cao	35:53
65 Jon Mikel Korta	36:10
66 Ander Guerrero	36:17

Urnietak:

3 Juan Luis Gomez	24:06
8 Jesus Mari Altuna	25:26
10 Asier Martinez	25:49
12 Norman Cuenca	26:12
15 Unai Lizeaga	26:36
18 Xabier Zaldúa	26:46
25 Jon Vidaurreta	28:03
37 Raul Fradejas	29:35
38 Aitor Iturralde	29:43
39 Pablo Fraisoli	29:47
43 Ibai Garmendia	30:20
50 Imanol Andres	31:10
51 Mario Ruiz	31:12
69 Almu Salas	36:26
73 Jose Luis Lopez	38:29
74 J.Ander Esteban	38:32
75 Aitor Odriozola	38:47
77 Xabier Romero	39:50
80 Eneko De Cea	41:38
81 Pilare Goenaga	41:50
83 Maria Muro	55:55
84 Sara Gabellanes	55:56

Ipar Martxa (7 Km.):

Emakumeak:

1. Marijo Villalba	48:15
2. Miren Rojo	49:20
3. Arantxa Astigarraga	49:59

Gizonak:

1. A. Urretabizkaia	45:37
2. Alberto Arenales	46:13
3. Pepelu Madina	47:24

Urnietak:

2 Alberto Arenales	46:13
52 Anabella Sainz	1:04:56

*Saillapen osoa:
Herrikrosa.eus webgunean.
*Argazkiak:
Aiurri.eus webgunean.

Arabar eta bizkaitar ugari hurbildu ziren ipar martxako proban parte hartzera



Ipar martxako podiumaren argazkia. AIURRI



Arenales, Urretabizkairekin. AIURRI



Anabella Sainz urnietarra. AIURRI



Euskaldunako lehen taldea. SDEUSKALDUNA

Hezur haragizkoak dira

FUTBOLA Andoaingo taldea Ligan lehen partida galdu duelako albiste da. Lidergotzan sendo jarraitzen du

Erredakzioa ANDOAIN

Ezin beti irabazi. Eta tarteka, horrelakoak beharrezko izaten dira. Hamabost jardunaldiren ostean, Euskaldunak denboraldiko lehen porrota ezagutu zuen. Klubak berak aitortzen du Orioko garaipen argia eskuratu zuela: "Zelaiari ikusitakoaren arabera, emaitza justua izan zela esan genezake, etxekoek inten-

tsitate eta joko gehiago erakutsi bait zuten". Eta txanponaren beste aldean, egun txarra izan zuen aurkaria. Kasu honetan, Andoaingoa. Bidea berrezartzeko aukera dute orain, denboraldi zoragarria egiten jarraituz. Roteta aurka arituko dira larunbat honetan, Donostiako Herrera futbol zelaiari izango da arratsaldeko 17:30an hasita.

Urnietako KE kadete neskak Euskadiko txapelketan

ESKUBALOAIA Euskadiko txapelketan debuta egin zuten, Urnietan bertan. Maila handiko txapelketa da, eta gauzak ez dira batere errazak izango. Lehen partidari San Adrian bizkaitarren aurka aritu ziren, eta 25-29 galdu zuten. Atearen aurrean ez zuten asmatu, baina hala eta guztiz ere partida nahiko parekatua izan zen.



Ainhoa Jauregi urnietarra. AINHOAJAUREGI

Sevillako maratoi erdian bikain ibili da Menta andoaindarrak

ATLETISMOA Andaluziako maratoi erdia 1:16:30 denboran egin zuen, kilometroko 3:37 minutuko batz bestekoarekin. Pozik zegoen batez bestearekin. Pozik zegoen Zumeatarrako korrikalaria, eta horixe adierazi zuen sare sozialetan: "Hobekuntza handia entrenamendu saio onen hilabetean. Jarrai dezagun". Sailkapen orokorrean, 7.800 korrikalarietatik, 66. postuan iritsi zen.

Ainhoa Jauregi bigarren Berastegiko Negu Trail lasterketan

ATLETISMOA Elur giroko lasterketa izan zen igandekoa, Berastegi aldean antolatuta zutena. Emakumezkoetan Ainhoa Jauregi urnietarra bigarren helmugaratu zuen, Sarah Ugarte donostiarraren atzetik. Gizonezkoen artean hainbat urnietar nabarmendu ziren: Xuban Ezeiza (11), Igor Amantegi (14), Unai Martinez (17) eta Mikel Legarreta (30).



Urnietako jokalariek gazteak.

Goikoetxea eta Barberena padel jokalariek

PADEL Haritz Goikoetxea eta Unai Barberena urnietarrak Donostiako Trinkete Ibaetako padel txapelketan finalera iritsi ziren. Lasarte-Oriako Padelo elkarteak kide dira biak, infantil mailakoak. Lehia handiko finala izan zen. Bikote bakoitzak set bana irabazi zuen (4-3 / 3-4), eta txapelketa Tie-break zirrargarri batean erabaki zen. Urnietako bi jokalariek UKE taldearekin futbolearen ere aritzen dira.



Finala ostiral honetan da. GIPUZKOAPILOTA

Nora Mendizabal Emakumea pilotari txapelketako finalera

PILOTA Amaitzean da Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak estreinako antolatuta duen eskuz binakako Emakumea Pilotari Txapelketa. Ostiral honetan finalak jokatuko dituzte, Zestoan, 18:30ean hasita. Finalisten artean, Nora Mendizabal andoaindarrak: 2. Eskuz binaka, 1. maila: Urien-Espinar / Nora eta Mainer Mendizabal.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOAIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA	
Orioko-Euskalduna	2-1
Urnietako-Mundarro	0-0
Billabona-Roteta	0-4

SAILKAPENA

1 Euskalduna	49 puntu
2 Baskonia	39 puntu
3 Touring	37 puntu
6 Roteta	32 puntu
12 Urnietako	20 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Roteta-Euskalduna / Lar, 9
18:00 Hernani-Urnietako / Lar, 9

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA	
Mundarro-Euskalduna	2-1

SAILKAPENA

1 Axular	42 puntu
8 Euskalduna	21 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Euskalduna-Intxurre / Lar, 9/10

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK	
Euskalduna-Urnietako	0-4

SAILKAPENA

1 Urnietako	43 puntu
2 Aloña Mendi	39 puntu
3 Hernani	28 puntu
4 Mutriku	27 puntu
5 Euskalduna	20 puntu
9 Bergara	6 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA	
Euskalduna-Amaikak Bat	1-0

SAILKAPENA

1 Billabona	41 puntu
12 Euskalduna	23 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00 Euskalduna-Anaitasuna / Lar, 9

JUBENIL MAILA, KOPA

EMAITZAK	
Baskonia-Euskalduna	5-0

SAILKAPENA

1 Usurbil	7 puntu
5 Urnietako	4 puntu
7 Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Euskalduna-Urnietako / Lar, 9

KADETE MAILA, NESKAK

KOPA, LEHEN JARDUNALDIA	
Luberri-Urnietako	2-1
Euskalduna-Danena	7-0

SAILKAPENA

1 Mundarro	6 puntu
5 Euskalduna	3 puntu
7 Urnietako	0 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

13:15 Urnietako-Euskalduna / Lar, 9

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA	
Orioko-Euskalduna	0-2

SAILKAPENA

1 Antiguoko	48 puntu
15 Euskalduna	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

12:30 Añorga-Euskalduna / Lar, 9

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOA, 1. MAILA

EMAITZA	
Eskoriatza-Euskalduna	2-4

SAILKAPENA

1 Euskalduna	36 puntu
2 Jaixki AFT	35 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Euskalduna-Jaixki / Ig, 10

ESKUBALOAIA

SENIOR MAILA

EMAITZA	
Urnietako-Bidasoa Irun	30-14

SAILKAPENA

1 Muntzarpe	20 puntu
3 Urnietako	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

13:00 Elgoibar-Urnietako / Ig, 10

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA	
Egia-Leizaran	29-23

SAILKAPENA

1 Usurbil	24 puntu
3 Leizaran	16 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:15 Leizaran-Legazpi / Lar, 9

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GAZTE TXAPELKETA UDABERRI	
Urnietako-Eibar	28-27

ASTEBURUKO PARTIDA

17:45 Legazpi-Urnietako / Lar, 9

JUBENIL MAILA, NESKAK

UDABERRI TORNEOA	
Leizaran-Eibar	19-15
Ereintza-Urnietako	15-17

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:15 Urnietako-Egoibar / Lar, 9
13:00 Bergara-Leizaran / Lar, 9

KADETE MAILA, MUTILAK

GIPUZKOA TROFEOA	
Urola-Urnietako	35-34

ASTEBURUKO PARTIDA

11:45 Urnietako-Egia / Ig, 10

KADETE MAILA, NESKAK

GIPUZKOA TROFEOA	
Leizaran-Aiala	29-18

ASTEBURUKO PARTIDA

-- Leizaran-Eibar

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 8

ESKUALDEA Matrikulazioa

2019-20. ikasturtea: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.

Azken eguna: Otsailak 8.

ESKUALDEA Matrikulazioa

EPA helduen heziketa eskolaren deialdia. Eskaintza zabala, aukeran.

Andoain: Kale Nagusia, 4.

(943 30 40 21).

Hernani: Antziola, 62.

(943 33 53 18).

Matrikulazioa zabalik.

URNIETA DJ Tailerra

Little Martin eta Marin Arakamaren

eskutik, 14-25 urte bitartekoentzat.

18:30-20:00, G. Informazio puntua.

URNIETA Deialdia

Otsailaren 16rako sagardotegia

antolatuta dute Denda Berrin.

izen-ematea: Otsailak 8.

ANDOAIN Hitzarmena

Gobernuz Kanpoko Erakundeekin lankidetzat hitzarmena.

12:00, Udaletxea.

ANDOAIN Urteurrena

Joseba Pagazaurtundua gogoan

hartuko du PSE-EE alderdiak.

12:00, Josebaren etxea eskultura.

ANDOAIN Erakusketa

"Izakia eta itzalen artean",

Frédéric Gutierrez Bardenen eskutik.

Erakusketa gela, Bastero.

LARUNBATA 9

URNIETA Batzarra

Denda Berri jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen batzar nagusia.

17:30, Denda Berri.

IGANDEA 10

ANDOAIN Parte hartzea

"Pausoz pauso, martxoak 8

emakume" kalejiran omenduko

dituztenak proposatzeko aukera

zabalik dago. Ideiak aurkezteko:

Bastero, Ataria, Allurralde, Andoain.

eus webgunea.

Azken eguna: Otsailak 10.



Axerien puska biltzea, iaz. AIURRI

ANDOAIN Axerien puska-biltzea

Inauterien etorrera iragarri, Axeri dantzariak neguko ospakizuna egingo dute.

Buruntzako baserrietan barrena ibiliko dira. Izen-ematea eta informazioa:

andoaingoaxeridantza@gmail.com.

08:00, Irunberri elkartetik irteera. Otsailak 16, larunbata.

URNIETA Antzerkia

"Baile de huesos" antzezlan, Donostiako Teatro Estudioren eskutik:

"Komedia jostagarria eta triste, itzaropentsua eta hunkigarria".

19:00, Sarobe. 5 euro.

ASTELEHENA 11

ANDOAIN Edukiontzia

Errefusa bereizteko edukiontzia itxiaren

erabilera indarrean jarriko da. Astean

lau aldiz ireki ahal izango da,

organikoa irekitzeko erabiltzen den

txartel berdinarekin.

Otsailaren 11tik aurrera.

ANDOAIN Lehiaketa

"Martxoak 8, Emakumearen

Nazioarteko Eguna 2019" zikloa

iragartzeko kartel lehiaketa deitu du

Udalak. Sari bakarra, 450 eurokoa.

Lanen aurkezpena: 10:00-13:00 /

17:00-19:00, Bastero.

ANDOAIN Korrika batzordea

Bilera irekia, Korrikaren antolakuntzan

laguntzeko. Korrika Laguntzaile

izateko edo materiala erosteko aukera

zabalik dago Andoaingo euskaltegian,

Plazaola kalean.

18:30, AEK euskaltegia.

ANDOAIN Bilera

Andoaingo Asanblada Feministak

datorren martxoaren 8ko greba

antolatzen jarraitzeko bigarren bilera

deitu du.

17:30, Urigain.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Piano jaialdia

Ehunka pianojole hurbilduko dira

Andoainera. Doako sarrera.

Otsailak 15-17, Bastero.

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik.

17:00, Lekaio.

URNIETA Diaporama

"Azore uharteak", Manex Aldairen

eskutik. Hiru finalistaren arteko lehen

diaporama eskainiko dute.

18:30, Lekaio.

LARUNBATA 16

ANDOAIN Omenaldia


Duela 25 urte preso baten bisitaldian

zihoan Matilde andoaindarra istripuz

hil zen. Gogoan izango dute.

12:00, Espigoia.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Spider-man: un

nuevo universo

Larunbata, 9: 17:00.

Igandea, 10: 17:00.

The old man and

the gun

Larunbata, 9:

19:30; 22:00.

Igandea, 10: 19:30.

Ast, 11: 19:30; 22:00.

Green Book

Larunbata, 23:

19:30; 22:00.

Igandea, 24:

19:30.

Astelehena, 25:

19:30; 22:00.

URNIETA

LEKAIO

Exit, un corto a la

carta

Ostg, 14: 19:00.

SAROBE

Stubby

Igandea, 17: 17:00.

SINOPSIK



Exit, Un Corto a la Carta

Zuz.: Adrian Silvestre. Herr.: Espainia (2012). Generoa: Fikzioa.

Hizkuntza: Gaztelania. Iraupena: 80 minutu, 15 pieza.

Inmigrazinea Lekaion

Benetako iragarkia izan zen, emakumezko etorkinei zuzendurikoa. Euren lekukotza

eskaintzea zen xedea. 50 emakumezkoek erantzun zioten deialdiari.

The Old Man and the Gun

Zuz.: David Lowery. Herr.: AEB (2018). Aktoreak: Robert Redford, Sissy Spacek, Casey Affleck, Tom Waits. Iraupena: 93 minutu.

Generoak: Drama, komedia.

Robert Redforden agurra

Forrest Tucker lapurraren benetako historian oinarritutako filma da. Bizitza osoa lapurretan edo kartzelan eman zuen. "Bizimodua


ateratzeko beste modu bat egongo da?", galdetu zioten behin. "Kontua ez da bizimodua ateratzea, bizitzea baizik", haren erantzuna.

andoainDARRA
euskaraz

ZORION AGURRAK



AIA / ANDOAIN
Unax Lopetegi Zatarain
13 urte otsailaren 15ean. Horrela segi futbolari! Anaia Aner eta lehengusu Oihanen partetik.



ANDOAIN
Ekhiñe
Otsailaren 8an 5 urte beteko dituzu eta ederki ospatuko dugu! Muxu potoloak etxekoan partez.



ANDOAIN
Uxue, Unai eta Jon
Urtarrilaren 18an Unai eta Jonek urtebete egin zuten eta otsailaren 4ean, Uxuek 4 urte. Asko maite zaituztegu. Muxu goxo bana!



ANDOAIN
Tio
96 urte egin zituen urtarrilaren 23an. Arraultza frijituak patatekin? Horixe baietz!



ANDOAIN
Imanol
14 urte urtarrilaren 31n. Dantza pixka bat egiten hasi beharko duzu, ezta?



ANDOAIN
Aitor
34 urte otsailaren 1ean. Kukuuuu! Patata-tortilla batekin ospatuko deu, bai ala bai!



ANDOAIN
Irune
6 urte urtarrilaren 30ean. Ikusi makusi, zein ikusi? Isilik egoten ez dakien sorgintxo!



ANDOAIN
Maialen
25 urte otsailaren 7an. Andereño! Aurten ba al dugu San Fermiñetarako etxea?

ANDOAIN
Iker
22 urte otsailaren 9an. Lehen postuan eta partidarik galduta gabe, aupa Euskalduna, gora Ipi!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz. **Arantzia 4-5, behea. Andoain** Etor zaitez bulegora: 943 300 732. **Whatsapp:** 619 16 35 37 Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora, herria zehaztuz.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta eguneko eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

ARO A ETA MIRARIAK

ASIER KIDAM
MAGIA IKUSKIZUNA

HAUR MINBIZIAREN IKERKUNTZAREN ALDE
Biltzen den dirua, Haur Minbiziaren diagnostiko eta tratamenduaren goi mailako ikerkuntzen inguruko proiektuetarako izango da

15 OTSAILA
HAUR MINBIZIAREN NAZIOARTERKO EGUNA

NON: SAROBEN
ORDUA: 18.00...
DONATIBOIA: 5€
(amanakidua + txokolatada)

WWW.TXOKOLATABAGOLIDARIA.ORG

2. TXOKOLATADA SOLIDARIOA

Unistako



Aurtengo parte hartze prozesua. UDALA

Parte hartze prozesuan, iaz baino proposamen gehiago jaso dituzte Urnietan

Erredakzioa URNIETA

Zertan gastatuko zenituzke Udalak aurtengo aurrekontutik bideratu nahi dituzten 150.000 euro? Gutxi asko, horixe da urnietarrei duela gutxi egin dieten galdera, aurreko urteetako prozedura errepikatuz. Eta esperientzia gorantz doala esan daiteke, urtetik urtera parte hartzea handituz doalako. Udalak antolatutako galdeketa, denera, 171 erantzun jaso dituzte. Proposamenak aletu ondoren, 167 aztertuko dituzte: "Onartu ez direnak galdetegi behar bezala ez beteagatik, proposamenaren egilea Urnietan erroldatuta ez egoteagatik edo proposamenaren egilea ez identifikatzeagatik baztertu dira". Parte hartzea gorantz doa, iaz 157 proposamen aurkeztu baitziren. Proposamenak bide ezberdinetatik jaso dituzte: informazio mahaitik (56), herriko buzoietatik (52), Urnieta.eus webgunetik (33) eta Urnieta APPTik (30).

AZKENA



Joan zen larunbatean Urigainen bildu zen emakume taldea, datorren martxoaren 8ko greba orokorra prestatzen hasteko. AIURRI

Martxoaren 8ko greba prestatzen hasita daude

Andoingo Asanblada Feministak deituta, otsailaren 2an hogeitaz lagunetik gora bildu zen Urigainen. Helburu zehatza dute: Martxoaren 8ko greba antolatzea. Zein bitarteko erabili eta zer nolako sentsibilizazio lana egin, horiexek izan ziren aztergai nagusiak

Jon Ander Ubeda ANDOAIN


Gogotsu, kementsu, indartsu dago Andoingo Asanblada Feminista. Lan taldea ez da txikia, eta datorren martxoaren 8ra bitarte ekimen betean aritzeko prest daude. Dagoeneko kaleetan greba iragartzen duten hainbat pankarta ikus daitezke. Hurren-

go egunetan merkatu plazan edota Zumea plazan informazio puntuak jartzeko asmoa dute. Bertan eskuorriak eta grebaren pinak eta besoko moreak banatzeko asmoa dute.

Otsailaren 11n bilera berria deitu dute, arratsaldeko 17:30ean hasita Urigainen.

Grebaren ardatz nagusiak

Ikasleak, enplegua, pentsiodunak, kontsumoa eta zaintza. Horiexek dira greba deitzaileen ardatzak. Andoainen asanbladak deitu zuen lehen bileran, alor bakoitzaren inguruko hausnarketa egin zuten. Taldeka lehenik, eta guztiak batera ondoren.



Faktoria Lila ekimeneko kide da Irantzu Varela. AIURRI

Irantzu Varela Martxoaren 8az hizlari

Andoingo emakume eta feminista askoren arreta bereganatu zuen Irantzu Varela hitzaldiak. Baita inguruko herrietako beste batzuen ere. Zumea kaleko Bilgunea ikusle baterik zegoela, feminista ezagunak aurtengo greba antolatzeko ideia nagusiak azaldu zituen. Ikusleek parte hartzeko aukera izan zuten.

Hilabete geratzen da, eta hainbat sektoretan grebaren aldeko dinamika indartuz doa. Ikustear dago zein izango den grebaren eragina, baina handia izango dela aurriztuen da. Iaz, esaterako, Andoingo martxoaren 8ko deialdiak erantzun zabal eta jendetsua lortu zuen.

Xaxi Metroko tabernariei esker onez

Kantujira taldekoek, aurretik iragarri gabe, Andoingo Zumea kaleko tabernan saio berezia eskaini zuten. Tabernarientzat otsailaren 3a azken lan eguna izan zen, erretiroa hartu dutelako. Andoindar askoretzat aski ezagunak eta maitatuak, Kantujirakoek kantu bidez esker ona adierazi nahi izan zieten.



Kantujira taldekoak, igande iluntzean. ANEJALON



Xaxiko barra, aski ezaguna andoindar gehienentzat. XAXI